



2024  
**MEMORIA**



[www.emaus.com](http://www.emaus.com)



**2024an, etapa berri bati ekin diogu Emaus Gizarte Fundazioan.** 2021ean hasitako hausnarketa-prozesuaren ondorioz, gure **2024-2026 aldirako Plan Estrategikoa** definitu dugu. Plan horrek inflexio-puntu bat ezartzen du, eta gure orientabide izango da datozen hiru urteetan.

Esparru horretan, **gure Misioa, Ikuspegia eta Printzipioak berrikusi eta eguneratu ditugu**, egungo testuinguruarekin lerrokatuz, eta bost erronka handi identifikatu ditugu, gizarte-eraldaketarako gure lana eta konpromisoa egituratzen dituztenak.

**Gure helburua da gizarte-eraldaketarako eragileak izatea**, eta sarean eta modu berritzailean lan egitea. **Hala, gizarte inklusiboagoa, kohesionatuagoa, ekitatiboagoa eta ingurumena errespetatzen duena eraikitzen laguntzen dugu.** Horretarako, **bost erronka** hauetan oinarritzen ditugu gure ahaleginak:

**1. Helburu bakar eta komun baten inguruan lan egitea,** gizartean dugun eragina indartzeko eta Emaus Gizarte Fundazioa osatzen dugun pertsona guztien eta haren partaidetzapeko erakundeen arteko kohesioa sustatzeko.

**2. Gobernantza-eredu berri bat sortzea;** eredu hori sinplifikatzea, profesionalizatzea, organo sendoak eraikitzea eta Fundazioko pertsona guztien parte-hartzea bermatzea, gure lanaren inpaktua handitzeko.

**3. Posizionamendu egokia lortzea, Ikuspegia betetzea lortzeko:** Fundazioa erreferentziazko eta laguntzako eragileztat hartzea inklusioaren eta ingurumenaren arloan, eta horretarako helburu argiak ezartzea.

**4. Prozesuen arabera lan egitea** eta prozesuen plangintza, parte-hartzea eta hobekuntza sistematizatzea, Fundazioak gizartean duen eragina handitzeko.

**5. Jasangarritasun ekonomiko-finantzarioa lortzea;** erronka horren helburua da Fundazioaren Misioa eta Ikuspegia betetzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzea.

**Eraldaketa-prozesuak ez dira errazak; dinamika ezagun batzuk zalantzan jartzea eta ziurgabetasun berriei aurre egitea eskatzen dute.** Gu ez gara salbuespena: 2024aren amaieran sentitu dugu aldaketa sakon bat hasteak dakarren inpaktu naturala. 2025ean, kolektiboki ikasten jarraitzen dugu, urratsez urrats antolaketa eta kultura eraldatzeko prozesu partekatu batean aurrera eginez. Prozesu horrek erronka jartzen digu, baina talde eta proiektu gisa indartu ere egiten gaitu.

2024a oso urte garrantzitsua izan da gure Misioa berrikusteko eta adosteko, eta Fundazioaren etorkizuna zehazteko.

Sarrera honi amaiera emateko, **eskerrak eman nahi dizkiegu Emaus Gizarte Fundazioa osatzen duten pertsona guztiei.** Eraldaketa-bide hori guztion artean eraikitzen ari gara, eta egunez egun eraldaketa hori errealitate bihurtzen dugunon inplikazioarekin baino ez da posible izango.

Era berean, eskerrak eman nahi ditugu **gure estrategia berriak** gizartean eta erakundeetan **izan duen harrera positiboagatik.**

**Eskerrik asko!**

# Aurkibidea

1. Gure Misioa
2. Gidatzen gaituzten printzipioak
3. Jarduketa-eremuak
  - 3.1. Eraldaketa komunitarioa
    - Hezkuntza
    - Kultura
    - Kirola
    - Kontsumo arduratsua
    - Ingurumena
    - Parte-hartzea
    - Euskara
  - 3.2. Inklusiorako laguntza
    - Inklusiorako gizarte-zerbitzuak
    - Enplegurako prestakuntza
    - Laneratze-enpresetako gizarte- eta lan-ibilbideak
4. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak
5. Beste prozesu estrategiko batzuk
  - 5.1. Euskara
  - 5.2. Berdintasuna
6. Komunikazioa eta sentsibilizazioa
7. Pertsonak eta sareak
  - Organigrama
  - Sareak eta aliantzak

# Gure Misioa

1.

## MISIOA

**Komunitatea eraldatu nahi dugu,** herritarren pentsamendu kritikoa sustatzen duten sareko prozesuak eta proiektuak aktibatuz, **gizarte-, kultura- eta ekonomia-ingurune bidezkoagoa,** inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztiak eta ingurumena zainduko dituen.

Gainera, zaugarritasun- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen laguntzen diegu beren sozializazio-prozesuan, ekonomia zirkularraren bidez gizarteratzeko, gaitzeko eta gizarte- eta lan-arloko laguntza emateko gizarte-zerbitzuen bidez, pertsona horiek lan-merkatu normalizatuan sar daitezten eta gizarteak arlo horretan aurrera egin dezan.

## NOLA?

**Eraldaketa-espinala osatzen duten mailak azpimarratu nahi ditugu: plano pertsonala, harremanei dagokiena (komunitarioa) eta egiturazkoa.**

Maila horietako bakoitzetik igarota, denboran iraungo duten eta benetako gizarte-eraldaketa ekarriko duten aldaketak sustatzeko gai izango gara.

# Gidatzen gaituzten printzipioak

2.

## Lankidetz

eta sareko lana.

## Ikuspegi Glokala

erronka eta larrialdi  
globalei tokikotik erantzuteko.

## Komunitateari egindako ekarpena

eta erantzukizun zibila,  
gure lanaren ardatz gisa.

## Berrikuntza

aldaketaren motor eta  
inpaktu-anplifikadore gisa

## Gardentasuna

egiten dugun guztian,  
barrian eta kanpoan

## Pertsonen garapena eta konpromisoa

ezagutzaren transferentziaren eta  
etengabeko prestakuntzaren bidez

## Auto-ekintzailetza

balioa emango duten soluzio berriak sortzeko.

## Ingurumena zaintzea

eragina minimizatuz eta  
daukaguna konpentsatuz.

## Inklusioa eta aniztasuna

bazterkeria- edo diskriminazio-zantzu  
oro desagerrarazteko.

## Berdintasuna eta ekitatea

desberdintasunen aurrean.

## Etika


Zintotasunez, ekitatez, erantzukizunez eta errespetuz  
jokatzen dugu, printzipio etiko profesionalek gidatuta.

## Giza eskubideen sustapena eta defentsa

gure lanaren oinarri gisa.

# Jarduketa- eremuak

3.





# Eraldaketa komunitarioa

3.1.

Etapa berri honetan, **eraldaketa komunitarioa Fundazioaren jardueraren erdigunean kokatzen da.** Gure helburua da gizarte kohesionatuago, bidezkoago, inklusiboago eta iraunkorrago baterako begirada aldatzea, sarean lan eginda lagunduz. Horretarako, **lankidetzaz-prozesuak eta -proiektuak bultzatzen ditugu kultura, hezkuntza, kirola, inklusioa, ingurumena, ekonomia eta halako esparruetan.** Lurraldeko administrazio publikoekin, gizarte-eragileekin, enpresekin eta erakundeekin batera egiten dugu hori, bizileku ditugun komunitateen erronkei erantzun integratuak emanez, **ikuspegi globalarekin eta tokiko arloan oinarritutako ekintzarekin.**

Gaur egun, gizarte-inklusioko eta ingurumen-jasangarritasuna -gure Misioaren ardatzak hasieratik-komunitate bakoitzaren potentziala aitortzen duten prozesu eraldatzaileetan elkartzen dira. Esparru horretan, **aldaketa kolektiboaren eragile aktibo gisa jotzen dugu, parte hartzeko, hausnartzeko eta elkarrekin eraikitzeko espazioak sortuz.**

**Lan hori dagoeneko presente gauden komunitateetan gauzatzen dugu:** Arrasate, Beasain, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun, Pasaia, Urnieta, Zarautz, Gamiz eta Derio. Leku horietan guztietan pertsonak, beharrak eta aukerak lotzen dituzten sareak ehuntzen ditugu. Horrela, **pertsonei lagun egitearen eta dinamika komunitarioen artean zubiak eraiki nahi ditugu, ingurune bizigarriagoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak sustatzeko.**

## ERRONKAK

**Proiektuetatik prozesu iraunkorretara igarotzea,** hasitako ekintzei jarraipena emateko eta haien inpaktua areagotzeko.

**Egungo erronken aurrean alternatibak proposatzea,** gizarte zuzenagoa, bidezkoagoa, kohesionatuagoa eta iraunkorragoa eraikitzen laguntzeko helburuarekin.

**Egiturazko desberdintasunei erantzutea** begirada intersektzionaletik.


**Herritarrak kritikoak eta erantzukideak izan daitezela** sustatzea, aldaketa-eragile gisa.

**Esku hartzeko politikak eta eremuak gehiago egituratzeko bidean aurrera egitea, sareko lanaren bidez,** erantzun eraginkorragoa eta eraldatzaileagoa lortzeko bide gisa.

**Pertsona guztien parte-hartze aktiboa bultzatzea** komunitateko bizitzan .

**Komunetik eraikitzea.**





## PRESENTZIA UDALERRIETAN

### GIPUZKOA

Udalerri guztien % 60  
Handienen % 80

BIZKAIA  
Gamiz  
Derio

### GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

**Sentsibilizazio-kanpainak:**  
800.000 pertsonako irismena

**Hezkuntza-proiektuak:**  
2.000 pertsona, 3 unibertsitate

### PARTE-HARTZEA

**Bazterketa-egoeran** dauden **pertsonak: 150**  
Ingurune **normalizatu**etako **pertsonak: 400**

**Aliantzak beste erakunde batzuekin: 50**

## PROIEKTU NABARMENAK

Jarraian, **2024an egindako jarduera komunitarioko proiektu** esanguratsuenetako **batzuk aurkeztuko ditugu.**

## HAZIGUNEAK ESKOLAK ERALDATZEN

Ikastetxeei zuzendutako proiektua, klima-aldaketaren aurrean erreferente aktiboak izan daitezten. Horretarako, Donostiako Peñafiorida Institutua bigarren hezkuntzako ikastetxean esku-hartze integrala egitea proposatzen du. Esku-hartze horren bidez, alde batetik, ikasleek **garatzeko duten gaitasun eragilea indartu nahi da, herritartasun globalaren ikuspegitik**, eta, bestetik, **2030 Agenda** landu nahi da **Kontsumo Arduratsu, Kontziente eta Eraldatzailearen (gaztelaniaz CRCyT), giza eskubideen, feminismoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren esparruetatik.**

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Peñafiorida Institutua. Gu Haziak Gara, Saretuz, SOS Arrazakeria, Erei Elkartasunerako Elkartea.

## GIZARTE MUGIMENDUEN HERRI UNIBERTSITATEA (UPMS):

Unibertsitatea/gizartea aliantzatik sortzen ari diren erronkentzako erantzun feministak.

**2022ko UPMSn oinarritutako proiektu honek** emakumeen eskubideekin, biztanleria migratzailearekin, ingurumen-jasangarritasunarekin eta ekonomia eraldatzaile feministekin konprometitutako **eragile sozial eta akademikoen gaitasunak indartzea du helburu, unibertsitate ekofeminista bat eraikitze aldera.**

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Unibertsitate Kritikoa Sarea eta EHUko irakasleak.

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

**4 elkarriketa-gune Bizkaian eta Gipuzkoan**  
(52 parte-hartzaile)

**8 prestakuntza-pilula** (200 parte-hartzaile)

**2 dokumentu kolektibo:** erreminta-kutxa  
+ unibertsitate feminista baterako gida

**EHUrekin lankidetzan egindako 1 ikerketa**  
pedagogia parte-hartzaileei buruz

**5 ekosistema diseinatu dira** (2 lagunduta)

**4 gradutan eta master batean parte hartzea**  
(100 ikasle, % 60 emakumeak)

**Jardunaldi publiko bat EHU**







## HEZKUNTZAREN ARLOKO INKLUSIOARI ETA EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO HITZALDIAK

Emaus Gizarte Fundazioaren 45 urteko ibilbideak argi uzten du komunitatea eraldatzeko eta inklusio-prozesuei laguntzeko erreferentea dela, eta lotura handia duela ekonomia zirkularrarekin. Aintzatespen horren ondorioz, **hainbat unibertsitatek sei aldiz gonbidatu dituzte Fundazioko profesionalak masterclassak ematera, besteak beste parte-hartze komunitarioaren, inklusiorako gizarte-zerbitzuen eta ekonomia zirkularraren arloetan.**

Saio horiek aberasgarriak izan dira bi zentzuetan: gure esperientzia, misioa eta lan egiteko modua partekatzea eta ikusaraztea ahalbidetzen dute; eta, aldi berean, ikasleek beren bat-batekotasunetik eta jakin-minetik ekartzen dituzten begirada eta ideia berriekin konektatzen gaituzte. Gainera, unibertsitateko errealitatearekin erlazionatzeak indartu egiten du prestakuntzarekin eta gizarte-eraldaketarekin dugun konpromisoa.

## IKASTETXEEK TRATAMENDU-INSTALAZIOETARA ETA BIGARREN ESKUKO DENDETARA EGINDAKO BISITAK

2024an, **Gipuzkoako 10 ikastetxe izan ditugu, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, Erreterian eta Urnietan ditugun ehungintzako, tamaina handiko eta TEEH (Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak) hondakinak tratatzeko instalazioetan.**

Bisitetan berreskuratze-ziklo osoa erakutsi zaie, hondakinen hierarkian kokatuta, eta bilketa eta berrerabilerari buruzko datuak eman zaizkie. Helburua izan da kontsumo arduratsuari eta ekonomia sozial eta zirkularrari buruz sentsibilizatzea.

**Bisitak osagarri gisa, gure bigarren eskuko dendetan ere izan dira, Fundaziotik sustatzen dugun prozesu zirkularraren amaiera gisa.**

## IKASLEEN ETA EMAUS GIZARTE FUNDAZIOKO PARTE-HARTZAILEEN ARTEKO EKINTZA KOMUNITARIOA

**Munto egoitza-zentrotik (Donostian) bi ginkana egin dira, Aiete auzoko bi ikastetxerekin lankidetzan: Aiete Ikastetxea eta Axular Ikastola.** Jarduera horiek hiru hilabetetan zehar egin dira, eta **helburu nagusia izan da ikasleen eta zentroaren erabiltzaileen arteko topaguneak sortzea, gizarte-trebetasunak garatzea sustatzeko testuinguru komunitario batean.**

**Parte-hartzea esanguratsua izan da:** Munto egoitza-zentroko 20 erabiltzaile inguruk eta guztira 120 ikaslek hartu dute parte ekimenean. Ginkanak tresna gisa erabili dira erabiltzaileen gaitasunak eta jarrerak agerian jartzeko ohikoa ez den ingurune batean, eta, aldi berean, hezkuntza-komunitateko kideekin harreman aberasgarriak sustatzeko.

## ARGAZKIGINTZA PARTE-HARTZAILEA ETA INKLUSIBOA UNIBERTSITATEAN

**Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan aritu gara belaunaldien arteko elkargune bat eta trukerako gune bat sortzeko, ikasleak gizarte-bazterketako prozesuei buruz sentsibilizatzeko eta haien egiturazko kausak ulertzen laguntzeko.**

Ekimen horretan **35 ikaslek** eta Munto egoitza-zentroko **6 erabiltzailek** hartu dute parte, eta elkarrikketa aberasgarria sortu dute esperientziaren eta prestakuntzaren artean.





## NOMADA JAIALDIA (II. EDIZIOA)

**Azaroaren 6tik 15era Arrasaten, Derion, Erreterian eta Irunen egindako jaialdi ibiltaria, artearen eta kulturaren bidez inklusioa eta eraldaketa komunitarioa sustatzen dituen.** Bederatzi egunez, bazterketa jasaten duten pertsonen eta bertako artisten zinema, musika, dantza, antzerkia eta muralismoa uztartzen zituen egitarau parte-hartzaile bat sortu zuten elkarrekin. Proposamen azpimarragarri gisa, "Botikin nomada" aurkeztu zen, elkarlanerako dispositibo artistiko bat, bizikidetzaren hobetzeko "erremedioak" biltzen dituen eta herritarren parte-hartzeari irekia.

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:** Kutxa Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Enplegu Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila eta Arrasate, Erreteria, Derio eta Irungo Udalak.

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

**Parte-hartzaileak** (bazterketa-egoeran): **156**

Lagundutako eta dinamizatutako **prestakuntza-prozesuak**: **3**

Gizarte erakundeetako **beste parte-hartzaile** batzuk: **100**

Jaialdira **bertaratutako publikoa**: **500 pertsona**

Parte hartu zuten **kultura- eta arte-eragileak**: **35**

**Hedabideetan izandako eragina** (digitala eta analogikoa): **352.000 pertsona**



II. Nomada Jaialdiaren laburpen-bideoa





REALA ETA GIPUZKOA BASKET:  
ELKARREKIN  
GIPUZKOA SOZIAL  
ETA ZIRKULAR BATEN ALDE

Gure sareko lan komunitarioaren parte gisa, aliantzak ezarri ditugu Gipuzkoako kirolaren bi erreferenterekin: Real eta Gipuzkoa Basket. Bi kasuetan, lankidetzaren oinarria izan da kontsumo-ohitura jasagarriak sustatzea; horretarako, klubetan edukiontziak instalatu dira, erabiltzen ez diren arropa eta objektuak biltzeko. Klubetako langileek, kirolariek eta erabiltzaileek aktiboki parte hartu dute, berrerabilpenean lagunduz eta ekonomia zirkularra sustatuz.

Gizartean oso errotuta dauden eta eragiteko gaitasuna duten erakundeak direnez, bi klubek beren komunikazio-kanalen bidez ikusgarritasuna eman diete kanpaina horiei, eta beren zaletasunak –eta gizartea oro har– ekimenarekin bat egitera animatu dituzte. Bildutako guztia Fundazioaren bigarren eskuko dendetara bideratu da, eta hala Gipuzkoako ekonomia sozialaren eta zirkularraren eredua indartu da.

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Real, Gipuzkoa Basket

ERAGIN-ADIERAZLEAK

Real

4 edukiontzi instalatuta

Jasotakoa guztira: 120 kg

Berrerabilitakoa guztira: 68 kg (% 57)

Gipuzkoa Basket

1 edukiontzi instalatuta

Jasotakoa guztira: 70 kg

Berrerabilitakoa guztira: 48 kg (% 69)

ZUBIA KIROLA

Kirola inklusiorako eta gizarte-kohesiorako tresna gisa sustatzeko erronkaren ildotik, Zubia Kirola jarri da abian aurten, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen artean ongizatea, parte-hartzea eta lotura komunitarioak sortzea helburu duen esperientzia pilotu gisa. Gorputz- eta kirol-jarduera egokituen bidez, proiektuak hainbat balio sustatzen ditu, hala nola berdintasuna, errespetua eta lankidetzeta.

Ekimen hau sortu zen Irungo Zubia zentroko erabiltzaile talde batek, Chakib Lachgar korrikalariaren (Behobia-Donostia hiru aldiz irabazi duena) hitzaldi inspiratzaile baten ondoren, entrenatzen hasia eta BAT zirkuituko herri-lasterketetan parte hartzea erabaki zuenean. Gogo hori izan zen proiektuaren ernamuina, Irungo Udalaren, Laboral Kutxaren eta Bidasoa Atletiko Taldearen (BAT) laguntzarekin.

Zubia Kirola ekimenak programa egituratu eta irisgarri bat proposatzen du, BATeko entrenatzaile batekin astero entrenatzeko saioak barne hartzen dituena, goizez eta arratsaldean, parte-hartzaileen interesetara egokituta. Jarduera egiteko kamisetak ematen dira eta BATen barne-kanpaina bat sustatzen da dohaintzan emandako kirol-zapatilak biltzeko, proiektuan parte hartzen dutenen eskura jarriko direnak.

Gainera, kirol-ekitaldietan parte hartzeko erraztasunak ematen dira, eta hilean behin entrenamendu berezi bat antolatzen da, eta ondoren hamaiketako egiten dute denen artean, parte-hartzaileak taldeko kide senti daitezzen.

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Irungo Udala, Bidasoa Atletiko Taldea (BAT), Laboral Kutxa.

ERAGIN-ADIERAZLEAK

Parte-hartzaileen kopurua: 115

Egindako entrenamenduen kopurua: 36

Zenbat kirol-ekitalditan parte hartu den: 4

Kirol-lasterketetan parte hartu duten pertsonen kopurua: 41

Parte-hartzaileei emandako kirol-ekipamenduaren kopurua: 60







## DONOSTIATRUK

**2024an, Donostiatriuk bigarren eskuko azoka txikiak 17. urteurrena ospatu du, 2008an abian jarri zenetik.** Donostiako Udaleko Ingurumen Zinegotzigoak gidatzen du eta Emaus Gizarte Fundazioak kudeatzen du, eta **ekitaldi hau funtsezko hitzordu gisa finkatu da hondakinen prebentzioa eta kontsumo arduratsua sustatzeko.** Urtean zehar, erabiltzen ez diren objektuei bigarren bizitza bat emateko prest zeuden dozenaka pertsona biltzen jarraitu du, Gipuzkoa zirkularragoa eta solidarioagoa izan dadin lortzeko.

***Erakunde antolatzailea:**  
Donostiako Udaleko  
Ingurumen Zinegotzigoa*

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

**550 pertsona** inguru **azoka bakoitzean**

Batezbeste **40 lanpostu** hilabetean

**Haurrentzako 11 tailer** egin dira,  
eta **150 haur** bertaratu dira.

## FICOPA BIOTERRA – BE VEGGIE

Ficobaren eskutik, Gipuzkoan jende asko biltzen duten erreferentziatzko bi azokatan parte hartu dugu: Bioterra eta Be Veggie. **Gure helburu nagusia publiko berriak erakartzea eta bigarren eskuko produktuen salmentaren bidez berrerabilera sustatzea da, bereziki arropena eta osagarriena.**

**Gure salmenta-postuaz gain, bi azoketako hitzaldigune nagusia egokitzeke ardura izan dugu, berrerabilitako altzariak erabilia.** Lankidetzaz horrek, erakundeak ekonomia zirkularraren alde egiten duen apustua indartzeaz gain, gure esperientziari balioa ematen dio, espazio jasangarrien diseinuan eta muntaian erreferente garen heinean.

**Bi ekintza horiek aukera ematen digute erakusteko bigarren eskua aukera erakargarria eta eskuragarria dela, kontsumo arduratsuaren ereduarekin koherentea.**

***Erakunde antolatzailea:**  
Ficoba*

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

**2 azoka**  
**Bioterra: 1.200 bisitari** / 200 unitate salduta  
**Be Veggie: 450 bisita** / 60 unitate salduta



## HONDARTZEN KANAPAINA

**“Zatoz olatura: hondakinik gabeko itsasertz baten alde”**

Ingurumen-sentsibilizaziorako kanpaina, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak sustatua, Emaus Gizarte Fundazioarekin batera, hondakinen bereizketa egokia sustatzeko eta kontsumo-ohitura jasangarriei buruz hausnartzeko. **Kamioi ibiltari baten, tailerren, jokoen eta hondartzako materiala mailegatzeko doako zerbitzu baten bidez, ekimenak adin guztietako pertsonak aktiboki inplikatu ditu itsasertzaz zaintzen.**

***Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun  
Departamentua, Garbera Merkataritza Gunea eta Urbil  
Merkataritza Gunea*

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

Estaldura Gipuzkoako kostaldeko **8 udalerritan**

Inpaktu zuzena **5.975 pertsonengan**

**Mailegatutako materiala:** Hondartzetan erabiltzeko  
**1.066 objektu**

**Hedabideetan izandako eragina** (digitala eta analogikoa): **570.000 pertsona**

## EHUNEN, TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN ETA TEEHen TRATAMENDU-INSTALAZIOETAKO ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

**Ingurumen-sentsibilizaziorako jardunaldiak, 2024ko azaroaren 18an eta 19an Erretereriako eta Urnietako instalazioetan eginak, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan.** Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Servicios Ambientales enpresak osatutako ABEEak antolatu zituzten Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuarekin lankidetzan, eta bigarren eskuko baliabideak berrerabiltzearen balioa zabaltzea izan zuten helburu, ekonomia zirkularrean gauzatzen duten ekintzaren ardatz nagusi gisa. **Bi egunez, jardunaldiek instalazioak eta horietan egiten den lana gertutik ezagutzeko aukera eman zuten, eta horiek hedabideetan zabaltzea baliagarria izan zen herritarrek sentsibilizatzeke berrerabiltzearen garrantziaz.** Ekimenak aukera eman zuen ikusarazteko ehunen, tamaina handiko hondakinen eta TEEH hondakinen kudeaketa egokiak, ingurumen-inpaktua murrizteaz gain, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarteratze-enplegua eta prestakuntza-aukerak ere sortzen dituela.

***Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:**  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun  
Departamentua eta Koopera Servicios Ambientales*

### ERAGIN-ADIERAZLEAK

**Ekonomia zirkularraren eta gizarte-inklusioren**  
arloko **50 eragile**

Eskualdeko ikastetxeetako **40 ikasle**





## ELKARBIDEAK

Programa horrek gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen **inklusioa eta parte-hartzea** sustatzen ditu, **bitarteko komunitarioen bidez**. Bi esperientzia aktibo indartzen ditu: **Uba Bidetik aldizkaria Gipuzkoan eta Ganbara Gizarte Irratia Bizkaian**, protagonistek eurek bultzatuak. Bi ekimen horiek garapen pertsonala, ikaskuntza kolektiboa, ekintza komunitarioa eta gizarte-sentsibilizazioa sustatzen dituzte.

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:** Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Joseba Parron, Véala, Hibernando.

## ERAGIN-ADIERAZLEAK

Emaus Gizarte Fundazioaren gizarteratzeko gizarte-zerbitzuetako zentroetako **61 pertsonak hartu dute parte** ( %38 emakumeak).

Esperientziak **trukatzeko 2 topaketa** egin dira lurraldeka.

**Bizkaiko irrati eta podcast komunitarioen lehen topaketan** parte hartu da.



## HAZI ETA GARATU (II. FASEA)

Gizarte-bazterketa arriskuan eta/edo egoeran dauden pertsonen eskubideen eta bizitzaren eta naturaren jasangarritasunaren alde lan egiten duten Bizkaiko **gizarte-eragileen ahalduntzea indartzera bideratutako proiektua, herri-hezkuntzaren ikuspegi pedagogikotik orientatutako kultura komunitarioko prozesu eraldatzaileak bultzatzen dituen**.

**Erakunde antolatzaileak eta/edo laguntzaileak:** Aradia Kooperatiboa, Mugarik Gabeko Ekonomistak, Histeria Kolektiboa, Mujeres en la Diversidad, Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitatea, Marikobaso, Saretuz, Lantegi Batuak, APNABI, Butroi Bizirik Trantsizioan, Nagusien Etxea, Alharaca Radio, Politeknika Txorierri, Derioko Udala eta Maria Arriera.

## ERAGIN-ADIERAZLEAK

**Prestakuntza-programa bat** garatzea, komunitate inklusiboak ikuspegi intersektionaletik eraikitzen lagunduko duten gakoak emateko.

Gizarte-erakunde eta -mugimenduekin lotutako **48 pertsonak** parte hartu dute **prestakuntzan**

**5 prozesu parte-hartzaile eta komunitario**

EHUko Gizarte Hezkuntzako ikasgelan esku hartzea, **28 ikasle** ekinean **ikasteko prozesuetan** inplikatur



Euskara, inguruneko berezko hizkuntza den aldetik, komunikazio-tresna ez ezik komunitatean integratzeko, kide izateko eta parte hartzeko tresna ere bada. Inklusio-prozesuetan pertsonei laguntzeko egiten dugun lanetik, hizkuntza ezagutzea eta bizitzea funtsezkoak izan daitezkeela uste dugu, ingurune sozial eta kulturalarekiko lotura errazteko. **Horregatik, gure zerbitzuetan parte hartzen dutenei euskara hurbiltzeko hainbat ekintza gauzatzen ditugu.**

Ekintza horien artean, asteko euskara eskolak nabarmentzen dira, **ikuspegi praktiko eta eskuragarriarekin**. Saio horiei esker, pertsonek hizkuntzaren oinarri erabilgarria eskuratu, egunerokoan erabiltzeko konfiantza indartu eta lurraldearen identitatearen funtsezko zati gisa duen balioaz sentsibilizatu ahal izango dute. **Interesa sortzeko, hizkuntza-oztopoak hausteko eta euskararen eguneroko erabilera sustatzeko pentsatutako lehen hurbilketa da, ikuspegi inklusibo eta ez-baztertzaile batetik.**

Prestakuntza-esparruaz gain, **euskarari lotutako gune komunitarioetan aktiboki parte hartzen dugu, hala nola Euskararen Egunean, Aieten**. Aieteko Euskara Taldearekin lankidetzan, besteak beste, haurren emanaldietarako eszenatokia eraikitzen laguntzen dugu, eta hala erabiltzaileen eta parte-hartzaileen inplikazioa sustatzen dugu. **Ekimen horiek komunitatearekiko harremanak indartzen dituzte, hizkuntzaren balioa ikusarazten dute eta kulturen arteko ikuspegi batetik topaguneak eta bizikidetzarako guneak sortzea ahalbidetzen dute, non euskarak gizarte-inklusiorako lotura gisa jokatzen duen.**

**Erakunde antolatzailea eta/edo laguntzailea:** Aieteko Euskara Taldea

## ERAGIN-ADIERAZLEAK

**Euskara-eskolak jasotzen dituzten** pertsonen kopurua: 20

**Euskararen Egunaren** inguruko jardueretan **parte hartu duten pertsona-kopurua: 115**

Muntoren inklusiorako **gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak: 15**

**Aieteko komunitateko pertsonak: 100**



# Inklusiorako laguntza

3.2.

Era berean, **pertsonei laguntzen diegu inklusiorako eta sozializatzeko prozesuan**, gizarte-zerbitzuen, trebakuntzaren eta lan- eta gizarte-ibilbideen bidez, ekonomia zirkularraren esparruan.

**Erreferenteak gara inklusiorako gizarte-zerbitzuen esparruan**, administrazioarekin batera lan eginez eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei balorazio- eta laguntza-zerbitzuak eskainiz. Horretarako, honako zerbitzu hauek ditugu: gaueko harrera eta eguneko arreta; laguntza eta bitartekaritza komunitarioko programak eta zerbitzuak; eta egoitza-zentroak eta etxebizitza lagunduak. Zerbitzu berriak eta arreta-eredua berritzen ditugu, laguntza ikuspegi komunitario batetik hobetzeko.

*Green skills*-ekin lotutako gaitasun orokorrak eta espezifikoak garatzeko **prestakuntza eskaintzen dugu**.

**Ekonomia zirkularraren bidez, laneratzeko aukerak sortzen dizkiegu lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei, ekonomia zirkularra bera sustatzen laguntzeaz gain**. 46 laneratze-lanpostu sortzen ditugu, eta, gurekin denbora batez aritu ondoren, inguruko enpresetan lanpostu bat lortzen laguntzen diegu.

# Inklusiorako gizarte-zerbitzuak

3.2.1.

**Hainbat administrazio publikorekin lankidetzan, programak eta zerbitzuak diseinatu eta kudeatzen ditugu, egoera ahulean eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonei beren inklusio-prozesuan laguntzeko**, inklusiorako gizarte-zerbitzuen bidez, pertsonarengarapena, integrazioa, herritartasun aktiboa eta ingurunean duen parte-hartzea ahalbidetzeko, eta, oro har, haien bizi-kalitatea hobetzeko.

## ERRONKAK

Pertsonalizazio-printzipioetan oinarritutako **arreta integratuko eredu batean aurrera egitea**, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Egungo **beharrak identifikatzea** eta konplexutasunari erantzutea ahalbidetuko duten **baliabideak edo metodologiak diseinatzea**.

**Tokiko laguntza-ekosistemen eta ekosistema komunitarioen eredia sustatzea eta garatzea.**

**Profesionalak zaintzea.**





# Eskaintzen ditugun zerbitzuak

**GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAK BALORATZEN  
ETA DIAGNOSTIKATZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUA**  
Zaintza eta Gizarte Politiketako Saila  
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Artatutako pertsonak guztira:

522 101 emakume  
421 gizon

**SEFAC: ESKUALDEKO FORU LAGUNTZA ZERBITZUA  
(BIDASOA, BURUNTZALDEA, DONOSTIA,  
OARSOALDEA, UROLA KOSTA)**  
Zaintza eta Gizarte Politiketako Saila  
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Artatutako pertsonak guztira:

272 58 emakume  
214 gizon

**GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO  
PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA**  
Errenteriako Udala

Artatutako pertsonak guztira:

117 43 emakume  
74 gizon

**GAUEKO HARRERA-ZENTROAK:**  
Irungo Udala  
- Zubia  
Errenteriako Udala  
- Belabaratz  
- Zarauzko Udala  
- Etxetik

Artatutako pertsonak guztira:

1286 111 emakume  
1175 gizon 3 zentro 75 plazak  
guztira

**EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA:**  
Irungo Udala  
- Zubia  
Errenteriako Udala  
- Belabaratz

Artatutako pertsonak guztira:

1223 102 emakume  
1121 gizon 48 plazak

**GIZARTE-INKLUSIOKO BEHARREI ERANTZUTEKO  
EGUNEKO ZENTROAK**  
Zaintza eta Gizarte Politiketako Saila  
Gipuzkoako Foru Aldundia:  
- Irun  
- Donostia  
- Aiete  
- Zarautz  
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna  
Sustatzeko Saila.  
Bizkaiko Foru Aldundia:  
- Derio (PAI Bitartean)

Artatutako pertsonak guztira:

87 20 emakume  
67 gizon

4 zentro

61 plazak  
guztira

**GIZARTE-BAZTERKETAAKO EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA EMATEKO EGOITZA-ZENTROAK**  
Zaintza eta Gizarte Politiketako Saila  
Gipuzkoako Foru Aldundia:  
- Donostia (Uba, Munto)  
- Pasaia (Portuenea, Itsas – etxea)  
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna  
Sustatzeko Saila.  
Bizkaiko Foru Aldundia:  
- Gamiz (PAI Bitartean)

Artatutako pertsonak guztira:

197 75 emakume  
119 gizon

5 zentro

110 plazak  
guztira

**ETXEBIZITZA LAGUNDUAK**  
Zaintza eta Gizarte Politiketako Saila  
Gipuzkoako Foru Aldundia:  
- Donostia  
- Errenteria  
- Arrasate  
- Idiazabal  
- Beasain  
- Zarautz  
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna  
Sustatzeko Saila.  
Bizkaiko Foru Aldundia:  
- Erandio

Artatutako pertsonak guztira:

53 22 emakume  
31 gizon

10 etxebizitza 3 etxebizitza  
Habitat

40 plazak  
guztira

ZARAUTZ OINARRIAN

Proiektu hau tokiko bi administrazioen baterako bultzadarekin sortu da, “laguntzena-jarraitutasuna bermatuko duten formula berritzaileak esperimentatzeko, arriskuan edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen ibilbideak zatitzea saihestuz”, egungo arreta-sistemak dituen zailtasun batzuk hobetu eta gainditzeko eta inklusiorako laguntzen tokiko ekosistema bat sortzeko.

**Laguntzaileak:**  
Gipuzkoako Foru Aldundia, Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentua; Zarauzko Udala

ERAGIN-ADIERAZLEAK:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren arteko **jarduketa-protokoloa**

**84 pertsona** artatu dira

**Beste eragile batzuekiko lankidetza:**  
Agipad, Caritas, Gurutze Gorria, Hotz Zarautz, KZGunea, Lanbide, GKE koordinatzailea, Osakidetza, Udal kiroldegia, SOS Arrazakeria, Suspergintza, Zabalduz Koop.



SCREENING BIDEZKO BAHEKETA-TRESNAK EZARTZEA

Erreferentziatzeko gizarte-zerbitzuetara jotzen duten pertsonen arrisku sozialaren edo konplexutasunaren maila zehazteko **baheketa- edo screening-tresna** bat diseinatu da, hasierako diagnostikoa eta hurbilketakoa egiteko aukera emango diguna, arriskurik dagoen edo ez identifikatzeko, bai eta arriskua mailakatzeko ere, ibilbide bereziak agintzeko abiapuntu gisa. Hala, tresnak aplikazio eta erabilera arin eta erraza izatea lortu nahi da, **Gizarte Zerbitzuetako profesionali arreta-premia konplexuak dituzten pertsonak identifikatzen laguntzeko diseinaturia, bai eta gizarte-zerbitzuek behar dituzten laguntzen eta testuinguruen intentsitatea sailkatzen laguntzeko ere.**

Diseinatu ondoren, **2024an barne-trebakuntza eta -prestakuntzako prozesu bat eman zaie Fundazioko profesional batzuei, helburu bikoitzarekin:**

- Hasierako diagnostikoak egiteko prestakuntza-prozesua** egitea, tresna horretarako laguntza-elementu gisa hartuta.
- Tresnaren beraren proba pilotuak eta baliozkotze-prozesua** egitea, aplikazioan lortutako emaitzak, profesionalak tresnaren erabilerari buruz duten gogobetetzea eta eskaintzen duen fidagarritasuna aztertuz. Horretarako, hasierako bi prestakuntza-saio planifikatu

dira, bai eta bi ikaskuntza-talde ere, zailtasunak, zalantzak eta erronkak konpontzeko etengabeko laguntza eskaintzeko, eta parte-hartzaile guztien artean jardunbide egokiak eta orientabideak partekatzeke, prestakuntza-prozesua gidatu duten bi profesionalen laguntzarekin.

**Laguntzaileak:**  
Gipuzkoako Foru Aldundia, Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentua

ERAGIN-ADIERAZLEAK:

Guztira **72 pertsonak** egin dute **proba pilotua** tresnarekin, eta guztira **19 profesionalak** erabili dute.

Hasierako **2 prestakuntza-saio** eman zaizkie **19 profesionali.**

**Bi ikaskuntza-talde** eratu dira, **8 eta 9 profesionalakoak**, eta beste **3 saio** egin dira talde bakoitzarekin, prestakuntza-prozesuari jarraipena emateko.

**Gogobetetasun handia** egon da gaikuntza-proposamenaren eta ikasketa-taldeen egokitasunarekin: **5etik 4,67ko puntuazioa.**



# Enplegurako prestakuntza eta lan- eta gizarte-ibilbideak, laneratze-enpresen bidez

3.2.2

Lanbidek egiaztatutako hiru prestakuntza-zentro ditugu Arrasaten, Donostian eta Irunen. Gune horietan prestakuntza eskaintzen dugu, parte-hartzaileen **enplegagarritasuna hobetzeko helburu** argiarekin, eta arreta jartzen dugu, edukiak eskuratzean ez ezik, gizarteratzearekin eta laneratzearekin lotutako trebetasunak eta jarrerak garatzea ahalbidetuko duten gaitasunak eskuratzea eragingo duen hausnarketa pertsonalean.

Era berean, gizarteratzeko bi enpresa ditugu, eta horien helburu soziala da **gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei gizarteratzen eta laneratzen laguntzea**. Kontratazio-aldian banakako jarraipena egiten da, eta, horrez gain, parte-hartzaileek funtsezko gaitasunak eta tresna praktikokoak eskuratzen dituzte, lan-merkatuan sartzeko prestatzeko; horrela, profil kualifikatuak sortzen dira ekonomia zirkularrari lotutako hainbat sektoretan lan egiteko.

## ERRONKAK

**Prestakuntza** lan-merkatuaren eskari berrietara egokitzea.

**Prestakuntza, laneratzea eta benetako enplegua** uztartzea.

**Enplegua lortzeko** oztopo ugari dituzten profilen **inklusioa** sustatzea.

## ERAGIN-ADIERAZLEAK

**250 pertsona prestakuntza-prozesuan**

**47 pertsona lagunduta gizarteratze-enpresetan**

## EMATEN DIREN PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

**Funtsezko gaitasunak, 1 eta 2**  
(matematikakoak, linguistikoak eta digitalak)

Enplegurako **gaitasun pertsonalak**

Gaitasun **digitalak**

**Ehungintza eta jantzigintza**

Hondakinak/baliabideak **bereiztea eta sailkatzea**

Eraikinak eta lokalak **garbitzea**

**Muntaia elektrikoak** eta elektronikoak

Tamaina handiko hondakinak **berreskuratzea eta berrerrabiltzea**

## IRTEERA PROFESIONALAK

**Logistika:** kamioi gidaria eta banatzailea

**Biltegia:** eskorga-gidaria, enbalatzailea, etiketatzailea, langilea

**Saltokia:** saltzailea, bezeroaren arreta, kutxazaina, apal-betetzailea

**Joskintza:** jostuna, ehun-fabrikako langilea

**Garbiketa:** beiragilea, garbitzaileak

**Mantentze-lanak:** laguntzailea, langilea, muntatzailea, konpontzailea

## GIZARTE- ETA LAN-IBILBIDEAK

**Logistika:**  
- Biltegiko laguntzailea  
- Eskorga-gidaria  
- Gidaria  
- Mezularia

**- Tratamendua:**  
- Hondakinak kudeatzeko peoia,  
- Ekoizpen-lerroak

**Jantzigintza:**  
- Jostuna,  
- Jantzien konponketak

**Merkaturatzea:**  
- Dendako langileak

**Garbiketa / Mantentze-lanak**

Elkar-EKIN

Beste erakunde batzuekin lankidetzan, gizarteratze- eta laneratze-ibilbide pertsonalizatuak bultzatzen ditugu bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat, arreta berezia jarriz kualifikazio txikiko gazteengan, iraupen luzeko langabeengan, ahalduntze-prozesuan dauden emakumeengan eta DSBE jasotzen duten pertsonengan. Proiektuaren irismena nabarmena da, presentzia dugun eskualdeetan gauzatzen baitugu: Debagoiena, Oarsoaldea, Bidasoa eta Buruntzaldea, esku-hartzeak tokiko testuinguru bakoitzaren berezitasun eta beharretara egokituz.

Europako Gizarte Funtsak, Enplegu Zerbitzu Publikoak (LANBIDE), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta La Caixak finantzatzen dute.

LANERATZE-ENPRESETAN ENPLEGU BERRIRA IGAROTZEKO ETA LAGUNTZEKO PROZESUETAN ESKU HARTZEA

Proiektuaren helburua da laguntzarako ekintza profesionalak sortzea, langileen enplegarritasuna hobetzen eta errazten duten alderdietan zentratuko direnak, gehienez 3 urtean lan-merkatu arruntean lanpostu bat lortzeko helburu argiarekin.

La Caixa Fundazioak finantzatua



PITEGI

Proiektuaren helburu nagusia da Gipuzkoako hondakinak berrerabiltzeko arloan langileak kudeaketa logistikoan gaitzeko dauden beharretara egokitutako jarduketak garatzea, eta hala gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gaitzea, berrerabiltzeko prestatutako hondakinen biltegiratzearen logistika kudeatzeko.

LANBIDEREkin lankidetzan

IBIL2DEAK

Langileen enplegarritasuna sustatzea, lanbide-kualifikazioa eta lanbide-esperientzia hobetuz eta zailtasun soziopertsonalen kudeaketan laguntza emanez, pertsonak lan-merkatu arruntean kalitatezko enplegu egonkorra lortu ahal izan dezaten.

LANBIDEREkin lankidetzan



# Laneratze-enpresetako gizarte- eta lan-ibilbideak

Gizarte- eta lan-lan ibilbideek laneratze-prozesuetan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzea ahalbidetzen dute, horretarako enplegura bideratutako prestakuntza eta benetako ekoizpen-jarduera baten garapena konbinatuta. Urtebete eta hiru urte bitarteko iraupena duten **ibilbide horiek, gainera, ingurumena zaintzen laguntzen dute, ehun-hondakinak, tamaina handiko hondakinak eta TEEH hondakinak** (tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak) berreskuratuz eta berrerabiliz, horiek bilduz, tratatuz eta merkaturatuz.

## IBILBIDEN JARDUN-ARLOAK:

### LOGISTIKA - BILKETAK

Gaur egun, **Gipuzkoako hiru mankomunitatetan jarduten dugu (Debagoiena, Tolosaldea eta Urola Kosta)**, guztira 41 udalerritan. **Era berean, etxez etxeko bilketa-zerbitzua eskaintzen dugu lurraldeko 22 udalerritan.** Horretarako, 10 kamioi eta furgoneta bat dauzkagu.

### TRATAMENDUA

Hondakinak berrerabiltzeko behar bezala prestatzeko, aldeztatik tratamendu espezifiko behar da hondakin mota bakoitzerako: ehunak, tamaina handiko hondakinak eta TEEH hondakinak. **Hiru tratamendu-instalazio ditugu: bi ABEE baten bidez kudeatzen dira Kooperarekin, Erreterian eta Urnietan; eta hirugarrena Arrasaten,** modu independentean kudeatzen duguna.

### BIGARREN ESKUKO DENDAK

Bigarren eskuko **6 denda** ditugu: Donostian (2), Irunen, Erreterian, Hernanin eta Arrasaten. Espazio horiek funtzio komertziala betetzeaz gain, topaleku, prestakuntza eta dinamizazio komunitarioko leku gisa ere balio dute.

### JOSKINTZA

Berrerabilera oinarritutako gure ikuspegiaren esparruan, ehunen konponketak funtsezko lekua du. **Joskintzari eta upcyclingari eskainitako ibilbide espezifiko bat** dugu, ekonomia zirkularra sustatzen duena.

### MANTENTZE-LANAK / GARBIKETA

Mantentze-lanetako ibilbideak ere baditugu: pintura, elektrizitatea, arotzeria, iturgintza eta altzarien eta tresnen konponketa txikiak.

Gainera, ohiko **garbiketak** zein aparteko lanak egiteko langile gaituak ditugu.

## ERRONKAK

Birziklatzearen aurrean **berrerabilpena sustatzea.**

**Baliabideak dimentsionatzea,** Gipuzkoan fluxu horien kudeaketa egokia bermatzeko.

Implementazio-prozesuan **dauden araudietara eta arau-esparruetara egokitzea.**

**Digitalizazioa,** trazabilitatea bermatzeko.

**Ikarketa eta berrikuntza,** berrerabilera-tasak handitzeko tratamendu-prozesuak optimizatzeke.


# Logistika Bilketak

2024an **bilketa hobetzean eta berrerabilpena handitzean jarri dugu arreta**, batez ere etxeko zerbitzuaren bidez, hori funtsezkoa baita bildutako materialaren kalitatea hobetzeko.

Horretarako, **10 kamioi eta furgoneta bat** ditugu



## EREMU GEOGRAFIKOA



**41 udalerri 3 mankomunitatetan  
22 udalerritan etxeko bilketa**

## EREMU GEOGRAFIKOA

### Mankomunitateak

#### Debagoiena

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati

#### Tolosaldea

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegi, Alkiza, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Atzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Billabona, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Zirzurkil

#### Urola Kosta


Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia

### Etxeko bilketak


Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Billabona, Donostia, Errenteria, Eskoriatza, Hendaia, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte, Lezo, Oiartzun, Orio, Oñati, Pasaia, Tolosa, Usurbil, Zarautz, Zizurkil



JASOTAKOA GUZTIRA:  
1.915.977 kg



BERRERABILIA GUZTIRA:  
728.732 kg



BILKETARI ETA  
BERRERABILERARI  
BURUZKO DATUAK

JASOTAKOA GUZTIRA: 1.915.977 kg

Ehunak: % 55,74  
Tamaina handikoak: % 32,01  
TEEH: % 12,25

BERRERABILIA GUZTIRA: 728.732 kg  
Jasotakoaren (% 38)

Ehunak: % 71,25  
Tamaina handikoak: % 26,04  
TEEH: % 2,58



# Tratamendua

**2024an, Emaus Gizarte Fundazioaren eta Kooperaren arteko Aldi Baterako Enpresa Elkartea (ABEE) jarri da martxan,** ekonomia zirkularrean eta gizarte-inklusioan erreferente diren bi erakunderen arteko aliantza estrategikoa sendotuz. Lankidetzaz hori **kasu praktiko aipagarritzat jo da ASETT kongresuan (Donostia, maiatzak 30).**

**Gaur egun, ABEEak 2.400 tona hondakin baino gehiago kudeatzen ditu urtean** (ehunak, tamaina handikoak eta TEEH), **Errenterian eta Urnietan kokatutako bi instalaziotan, 4.000 m<sup>2</sup>-ko** azpiegitura baino gehiagorekin eta **21 langilerekin,** horietako asko gizarteratze-prozesuetan.

**LORPEN NABARMENAK**

- **Baterako eredu eraginkorra, errepikagarria eta araudiarekin bat datorrena** aktibatzea.
- **Berrerabilpena** bultzatzea, ekoizpen- eta gizarte-ikuspegitik.
- Hondakinen tratamenduari lotutako **gizarteratze- eta laneratze-ibilbideak.**

**IKASKUNTZAK ETA ERRONKAK**

- **Antolamendu-kulturen koordinazio operatiboa eta harmonizazioa.**
- **ABEE baten berezko zerga- eta administrazio-eskakizunetara egokitzea.**
- **Sektorean profesionalizatzeko** beharra.



Emaus Gizarte Fundazioa – Koopera ABEEaren aurkezpen-bideoa

# Bigarren eskuko salmenta

Gaur egun, bigarren eskuko **sei denda** ditugu Gipuzkoan: Arrasaten, Donostian, Errenterian, Hernanin eta Irunen. **2024an pauso garrantzitsu bat eman dugu, hasiera eman baitiogu gure denden sarea eraldatzeko eta posizionatzeko prozesuari.** Aldaketa hori 2024-2026 estrategia berriaren parte da, zeinak kontsumo arduratsuaren, ekonomia zirkularraren eta enplegu inklusiboaren sustapenean jartzen duen fokua, eta espazio horien berrikuntza integrala planteatzen duen, benetako topagune komunitario bihurtzeko.

Etapari berri honen esparruan, **gure dendak espazio bizidun gisa birpentsatu eta egokitzen ari gara, eta salmenta jarduera sozial, kultural eta hezigarriekin osatu nahi dugu:** tailerrak, hitzaldiak, erakusketak eta tokiko eragileekin egindako ekintzek herritarren parte-hartzea bultzatzen dute, eta kontsumo-eredu kontzienteago, bidezkoago eta jasangarriagoarekin dugun konpromisoa indartzen dute.

Hortaz, 2024. urtean hasiera eman diogu berrikuntza-prozesu bati, eta hurrengo ekitaldietan aurrera jarraituko du, **gure dendak lurraldeko ekonomia sozial eta zirkularraren erreferente gisa sendotzeko.**

## BIGARREN ESKUKO DENDAK

Ehungintza, oinetakoak, bazarra, altzariak, liburuak, jostailuak, brokantea eta aparailu elektriko eta elektronikoak (TEEH).



### ARRASATE

Bidekurtzeta 2  
1000m²




### DONOSTIA I

Mendeurrenaren plaza 3  
400m²



### DONOSTIA II

Easo 81  
332m²



### ERRETERIA

Nafarroa hiribidea 25-27  
275m²



### HERNANI


Latsunbe 10  
658m²



### IRUN

Auzolan 44  
900m²

## BERRERABILITAKO PRODUKTUAREN SALMENTAK



286.533 UNITATE SALDUTA 2024an



# Joskintza

Emaus Gizarte Fundazioaren joskintza-lerroak hondakinak baliabide bihurtzen ditu, publizitate-olanak, azoketako moketak, erabiltzen ez diren industria-ehunak eta halako materialak berrerabiliz.

Joskintza-tailerrean, material horiek modako osagarri, bulegoko produktu eta *merchandising* pertsonalizatu bihurtzen dira, eta enplegu inklusiboa sortzen dute gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat.

Gainera, enpresei beren hondakinetatik abiatuta produktu pertsonalizatuak sortzeko aukera eskaintzen diegu, eta horrela jasangarritasuna, ekonomia zirkularra eta konpromiso soziala sustatzen ditugu.

## EGINDAKO LANAK

**RIBARTEX IBÉRICA:** 1.500 erosketa-poltsa TRANSIT marka komertzialerako, hainbat hiritako salmenta-puntuetan erabilitako publizitate-olanekin eginak.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA, DONOSTIAKO ZINEMALDIA ETA SPANSET:** 1.300 poltsa birziklatu Zinemaldiko alfonbra gorritik abiatuta, egoera ahulean dauden pertsonen elikagaiak banatzea errazteko, Elikagaien Bankuaren bidez.

**FICOPA:** Ficoba azoka-esparruko hitzaldi-zentroko espazioak diseinatzea eta egokitzea Bioterra eta Be Veggie azoketarako, berrerabilitako materialak erabiliz, ekitaldi jasangarrien esparruan eredu zirkularrak sustatzeko helburuarekin.

**IRIZAR EMOBILITY:** gurpilak eta aurreko panelak babesteko 140 zorro baino gehiago, ehun-hondakinak berrerabiliz.

**GEROA:** *merchandising* iraunkor bihurtutako 100 motxila, material berrebilgarriarekin eginak.

**IHOBE:** 600 estutxe pertsonalizatu baino gehiago eta ogitartekoak sartzeko 300 poltsa, Basque Circular

Summit azokako moketa berrerabilita eginak.

**BASQUETOURL:** ordenagailu eramangarrien 45 zorro, PVCzko olanekin eginak, eta 1.200 giltzatak pertsonalizatu, FITUR azokako moketarekin eginak.

**UVESCO:** 160 totebag, Super Amarako uniformeekin eginak.

**HABEMUS STUDIO:** 120 *merchandising* artikulua Basquerville Festibalerako.

**TDEX VITORIA:** 120 produktu, beren publizitate-olanekin eginak.

Honako erakunde hauen eskariei ere erantzun zaie, besteak beste: Red Ambiente, Getxo Photo, Eventokia, Zarauzko Udala eta AEIGA. Kasu guztietan, hondakinen berrerabileran eta enplegu inklusiboaren sorreran jarri da arreta.

## ERAGIN-ADIERAZLEAK

Ekintza horiek Emaus Gizarte Fundazioak ekonomia zirkularrarekin eta gizarte-inklusioarekin duen konpromiso irmoa islatzen dute:

**Gizarte- eta lan-enpleguko 1.806 ordu  
1.830 kg berrerabilitako material**



# Mantentze-lanak / Garbiketa

**Mantentze- eta garbiketa-zerbitzu bat** eskaintzen dugu, erakunde publikoetan, pribatuetan eta baita etxeetan ere ohikoa den behar bati erantzuten diona: **konponketa txikiak, hobekuntza esku-hartzeak eta arreta orokorreko zerbitzuak, askotan ohiko zirkuituetan estaltzen ez direnak.**

Mantentze- eta garbiketa-kontratu guztiak **Konpongi** markaren pean egiten dira, **EDE Fundazioarekin** lankidetzan, Suspertu gizarteratze-enpresaren bidez.

## EMANDAKO ZERBITZUAK

**Mantentze-lanak:** Kanpoko 5 enpresa + Emaus Gizarte Fundazioa

- Agifes **140 h**
- Aspace **33 h**
- Hurkoa **49 h**
- Zabalduz **425 h**
- Emaus Gizarte Fundazioa **2.117 h**

**Garbiketa:** Kanpoko 3 enpresa + Emaus Gizarte Fundazioa

- Irungo Udala **10 h**
- EDE Fundazioa **20 h**
- Hurkoa **10 h**
- Emaus Gizarte Fundazioa **4.500 h**



# Berrikuntza- eta ikerketa- proiektuak

4.

Konpromiso sendoa dugu berrikuntzarekin eta etengabeko hobekuntzarekin, eta aktiboki parte hartzen dugu berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan.

**2024an, 7 proiektu nabarmen garatu ditugu Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko mailan**, funtsezko arlo hauetan egiten dugun lana sendotzeko:

## GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-IBILBIDE INTEGRAL PERTSONALIZATUEN ARRETA- EREDUA

Proiektuaren helburua da **pertsona zaurgarrien laneratzea hobetzea Euskadin, ibilbide integral eta pertsonalizatuen bidez, pertsonarengan zentratuta eta ekonomia zirkularrari lotuta**. Gaur egun, eskualdeko lau proba pilotu garatzen ari dira, hondakinen logistikan, tratamenduan eta merkaturatzean hiru prestakuntza- eta lan-ibilbide inplementatzen dituztenak, Lanbideren, tokiko erakundeen, hirugarren sektoreko eragileen eta enpresen arteko lankidetza sustatuz.

Ereduak bost fase ditu: diagnostikoa, prestakuntza, plataforma digitala, erakundeen arteko koordinazioa eta komunikazioa. 120 parte-hartzaileetatik gutxienez 80k ibilbideak osatzea espero da, gizarteratze eta laneratze handiagoa lortzeko, erakundeen zatiketa murrizteko eta enplegu berdea bultzatzeko helburuarekin.

*Europako Gizarte Funtsak eta Lanbidek finantzatutako proiektua*

## EHUNA ETA TEEH BERRERABILTZEKO EKOCENTERRAK

Proiektuak ekonomia zirkularra bultzatzen du Euskadin, ehun-hondakinak eta tresna elektriko eta elektronikoak (TEEH) bilduz, tratatuz eta merkaturatuz, bi helbururekin: hondakinen Europako araudia betetzea eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat kalitatezko enplegua sortzea. Sektorean dugun urteetako esperientziatik abiatuta, gaitasun operatiboa handitzea, digitalizazioa, ekipamenduko inbertsioa eta prestakuntza espezializatua uztartzen dituen plan bat diseinatu dugu. Prozesua hiru fasetan garatzen da (diseinua, proba pilotua eta eskala handiko ezarpena), eta, gainera, herritarren sentsibilizaziorako eta hondakinen trazabilitaterako zeharkako estrategia bat ere txertatzen du. **Hala, oso kutsagarriak diren sektoreen ingurumen-inpaktua murriztu nahi da**, hala nola ehungintzarena, eta TEEHen **hazkunde esponenzialari erantzun, bai eta tokiko ikuspegitik aukera ekonomiko eta sozial berriak sortu ere**.

*Europar Batasunak finantzatutako proiektua (Next Generation EU)*

## WEEELOOP

TEEHen kudeaketa zirkularrerako sistema berritzaile bat garatu du, sukaldeko plaken materialak eta osagaiak berreskuratzean zentratua, eta % 90eko tasara iristen da. Balio-kateko funtsezko erakundeek parte hartzen dute, hala nola ECOLEC, Circular Replay, Éxxita, Copreci eta Emaus Gizarte Fundazioa.

*Europar Batasunak finantzatutako proiektua (LIFE)*

## GIPUZKOAN BERRERABILTZEKO PRESTATZEARI BURUZKO AZTERLANA

Berreskuratutako produktuak –ehunak, TEEH, tamaina handiko hondakinak eta bestelakoak– **biltzeko, tratatzeko eta merkaturatzeko beharrak aztertzen ditu, ekonomia sozialaren ikuspegitik** Gipuzkoa ardatz duen arren, estatu-mailara estrapola daitekeen eredua eskaintzen du, **lurralde osoan berrerabiltzeko prestakuntza-zentroak sortzera bideratua**.

*Espainiako Gobernuak finantzatutako proiektua (Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa)*

## SOSRAEE

Balio-bizitzaren amaieran TEEHen balioa atxikitzeko metodologia eta negozio-eredu berriak aztertzen ditu, **etxetresna elektriko osoa berreskuratuz edo pieza berrerabilgarriak erauziz**. Helburua da 2027an % 55eko tasa lortzea Emaus Gizarte Fundazioak kudeatutako TEEHak berreskuratuta eta berrerabiltzeari dagokionez.

*Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektua (HAZITEK)*

## SMARTEKO

Produktuaren Pasaporte Digitalak sortzea ahalbidetuko duten plataforma digitalak garatzen ditu, datuak modu egituratu eta seguruan biltzeko, **balio-katean zeharreko trazabilitatea egiteko eta jasangarritasun-adierazleak kalkulatzeko**. Europako araudiei aurrea hartu eta onurak sortu nahi ditu, hala nola ekodiseinua hobetzea, materialen eta energiaren eraginkortasuna hobetzea eta aukera zirkular berriak sortzea.

*Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektua (HAZITEK)*

## CORTEX

Ehungintzako ekodiseinua bultzatzen du, material **jasangarri berrien garapen esperimentalaren bidez**. Hari termofusible bio-oinarrituak eta itsasgarri itzulgarriak erabiltzen ditu, jantzien osagaiak bereiztea eta berrerabiltzea ahalbidetzen dutenak, errazago birziklatzeko. Proiektuak barne hartzen ditu materialen diseinua, “eskaeraren arabera” bereizteko protokoloak, bideragarritasun industrial eta ingurune errealean baliozkotzea.

*Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektua (HAZITEK)*

Proiektu horiei eta beste batzuei buruzko informazio gehiago gure webguneko “proiektuak” atalean

[www.emaus.com](http://www.emaus.com)



# Beste erronka estrategiko batzuk

5.

## EUSKARA

Gure ingurunearekiko konpromisoak bertako kultura aitortzea eta bultzatzea dakar, eta hizkuntza da kultura horren funtsezko zutabeetako bat. **Etapari berri honetan, euskara zeharkako lan-ildo estrategiko gisa finkatu dugu, eta aktiboki txertatu dugu erakundearen eguneroko bizitzan.**

2024an euskara-prozesua formalizatu egin da, helburu hauekin:

- **Hizkuntza-politika** argi bat definitzea
- **Idazteko irizpide komunak** ezartzea
- **Zeharkako lantalde** bat osatzea
- **Euskara sustatzeko** plan espezifiko bat diseinatzea

**Euskararen erabilera lehenesten da eremu guztietan:** telefono bidezko arretan hasierako agurrak euskaraz egiten dira; idatzizko mezuak elebakarrak (euskaraz) edo elebidunak dira; eta bilerak euskaraz egiten dira parte-hartzaile gehienek dakitenean (zuzendaritzaren bileretan gertatzen den bezala). **Era berean, lanbide-profil guztiek hizkuntza-irizpidea barne hartzen dute betekizun gisa,** eta, beraz, hautaketa-prozesuetan euskaraz ulertu, hitz egin eta idazteko maila egokia eskatzen da.

## BERDINTASUNA ETA EKITATEA

**Gizarte justuagoa, kohesionatuagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko, berdintasuna eta ekitatea gure ekintzaren erdigunean jarri behar dira.** 2024an, konpromiso hori indartu dugu, eta balio horiek erakunde osoan modu estrukturalen integratzeko zeharkako prozesu estrategiko bat sortu dugu.

Berdintasun- eta ekitate-prozesuaren helburua da erakundearen **eremu guztietan berdintasun-printzipioak betetzen direla bermatzea. Emakumeen eta gizonen** arteko berdintasunari ez ezik, **jatorri kulturala, egoera ekonomikoa eta/edo arraza bezalako** faktoreetatik eratorritako desberdintasunei ere heltzen zaie.

Esparru horretan, genero-berdintasunaren aldeko proiektu bat jarri dugu abian, ikerketa-ekintza-partaidetza metodologian oinarrituta. Urtean zehar diagnostiko parte-hartzailearen fasea egin dugu, eta 2025ean ekintza-plan estrategiko bat egingo dugu, proiektuari amaiera emateko.

Era berean, zeharkako genero-talde bat eratu da, zerbitzu, prozesu eta komunitate desberdinak ordezkatzen dituzten bost emakumez osatua, erakundearen etorkizuneko Berdintasun Plana bultzatzeko helburuarekin

# Komunikazioa eta sentsibilizazioa

6.

Komunikazioa funtsezkoa da Emaus Gizarte Fundazioak gizartearen begirada aldatzeko duen misioan.

2024an, aldaketa garrantzitsuak egin dira arlo horretan. Fundazioaren estrategia berriarekin batera, **komunikazio-plan berri** bat diseinatu eta abian jarri da, erronka eta helburu publiko berriei erantzuteko, komunikazioaren irismena, eraginkortasuna, tonua eta estiloa hobetzeko asmoz.

**Webgune berri bat** diseinatu da, oraindik eraikitze-prozesuan dagoena, posizionamendu eta estilo hobetuarekin, eta urtean zehar argitaratutako albiste eta edukien kopurua nabarmen handitu da, aurreko urteekin alderatuta (www.emaus.com)..

**Sare sozialek protagonismo handiagoa hartu dute**, eta publiko jeneralista eta gazteagoarekiko gure komunikazio-kanal nagusia bihurtu dira. Edukien estrategiak misio berrituari eta erronka eta publiko berriei erantzuten die. Edukiak dibertsifikatu eta formatuak hobetu dira, eta askotan bideo-formatua aukeratzen dugu.

**Prentsa-kabinetearen lan handia ere egin da**, komunikabideekiko harremana estutzeko eta prentsan agerraldi gehiago lortzeko.

Azkenik, **Harreman Publikoek ere garrantzi handiagoa hartu dute**; hala, biltzar eta jardunaldietan parte hartu dugu, eta erakundeen bisitak izan ditugu instalazio eta egoitza-zentroetan.

## 49 AGERRALDI HEDABIDEETAN

**Telebista: 6**  
**Irratia: 8**  
**Prentsa: 35**  
**14 prentsa-ohar argitaratu dira**

## 9.000 BISITA WEBGUNERA

**SARE SOZIALAK**  
**% 22 + jarraitzaileak**  
**% 35 + Irismena**

**Instagram: 4,7 K**  
**Facebook: 7,1 K**  
**Linkedin: 3,9 K**  
**Youtube: 314**

## BISITAK

**17 bisita Emaus Gizarte Fundazioaren instalazioetara**


**10 bisita eta hitzaldi ikasle eta elkarreentzat**  
**6 bisita erakundeen aldetik**

## BILTZARRAK ETA HITZALDIAK

Gure jarduerari eta misioari buruzko **17 jardunaldi**, hitzaldi, azoka eta abarretan parte hartu dugu



# 2024 iruditan





# Emaus Gizarte Fundazioa pertsonak

7.

## INTERES SOZIALEKO DATUAK

481

### PERTSONA

kontratatuta  
Emaus Gizarte Fundazioan

266

### KONTRATU MUGAGABE

PLANTILLAREN % 84.51

376

EMAKUME

36<sup>as</sup>

BATEZ BESTEKO ADINA

105

GIZON

421

GIPUZKOA

60

BIZKAIA

361

PERTSONA  
Fundazioan

120

PERTSONA  
laneratze-enpresetan

### BIZITZA PERTSONALA ETA LANEKOA KONTZILIATZEKO NEURRIAK


- Legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketak, non langileak hobekien datorkion ordutegia ezartzen duen.

- Seme-alabak zaintzeko eszedentziak (5 urtera luzatua Bizkaian), **GSINek aitortzen dituen 16 asteko amatasun-baimenak** (3 aste gehiago Bizkaian eta 1 Gipuzkoan).

- Edoskitzeagatiko lanaldi-kontzentrazioak edo-murrizketak, aukeran.

Emaus Gizarte Fundazioak langile berriak kontratatzeko politika bat du, legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketak, seme-alabak zaintzeko eszedentziak, edoskitzeak eta/edo oporrak estaltzeko.

# Gure organigrama



# Sareak

|                                 |                                                                         |
|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| <b>ACLIMA</b>                   | <b>Hedatzen</b>                                                         |
| <b>AERESS</b>                   | <b>iLab</b>                                                             |
| <b>Merkataritza-elkarteak</b>   | <b>Emaúsen Espainiako/<br/>Europako/nazioartekoa parte-<br/>hartzea</b> |
| <b>BesteBI</b>                  | <b>Pobreza Cero plataforma</b>                                          |
| <b>Euskadiko GGKEen</b>         | <b>Red de Economía Alternativa y<br/>Solidaria (REAS)</b>               |
| <b>Koordinakundea</b>           | <b>Saretuz</b>                                                          |
| <b>Merkataritza-federazioak</b> | <b>Sargi</b>                                                            |
| <b>Gizardatz</b>                | <b>Unibertsitate Kritikoa Sarea (UKS)</b>                               |
| <b>Gizatea</b>                  | <b>...</b>                                                              |
| <b>GK Green Fashion</b>         |                                                                         |
| <b>...</b>                      |                                                                         |

# Aliantzak eta erakunde laguntzaileak







2024  
**MEMORIA**

[www.emaus.com](http://www.emaus.com)

